

IRAKURKETA-GIDA

Jara Bartzelonan

Jasone Osoro

begiko

Jara Bartzelonan

Jasone Osoro



LIBURUAREN AURKEZPENEA

Egilea

Jasone Osoro Igartua Elgoibarren jaio zen 1971n. Kazetaria da lanbidez eta prentsan aritu izan da, bai irratian, bai telebistan.

Lehenbizi helduentzat idazten hasi zen Jasone, baina 2001ean Jara pertsonaia sortu eta izen bereko liburua idatzi zuen gazteentzat. Liburu horrek berehalako arrakasta lortu zuen nerabeen artean. Gero beste bat etorriko zen, eta beste bat... Gaur egun lau liburuk osatzen dute *Jara* saila: *Jara*; *Jara, bikiak eta bikoteak*; *Jara Bartzelonan* eta *Jara live*. Liburu hauek hainbat sari eta aipamen jaso dituzte: Liburu Gaztea, JUUL sariak...

Jara sortu zuenetik Jasone erreferentzia bilakatu da baita gazte literaturaren alorrean ere.

Liburua

Aitaren lan-kontuak direla eta, Jara Bartzelonara joan zaigu. Bizimodu berrira egokitzea ez da erraza izan, baina Laia ezagutzean, hiriak ateak ireki dizkiola sentituko du eta hiriak eskaintzen dizkion aukerez gozatzen hasiko da. Laguna alboan, makina bat bizipen berri izango ditu: *looka* aldatuko du, lanean hasiko da, lagun berri eta interesgarriak egingo ditu, mutil berri bat ezagutuko du... Bizitzaren ari den guztiak liluratuta, bizitzaz gozatzea izango da bere lehentasuna, eta lehenengo aldiz, ikasketek eta betebeharrek garrantzia galduko dute. Momentua aprobetxatu nahi du, gero gerokoak. Baina, nola ez, horrek guztiak eztanda egingo du eta ondorioak izango ditu. Hau guztia gutxi ez, eta Urkok une korapilatsu hau aukeratuko du Bartzelonara ezusteko bisita egiteko.

Nola erreakzionatuko du Urkok Jara Oriolekin dagoela jakitean? Eta gurasoek ezkutuan jokatzen eta gezurretan aritu dela jakitean? Nola sentituko da Jara egin-dakoaz ohartzean?

Zergatik irakurri liburu hau?

Zalantzak, maiteminak, errebeldia, heldu izan nahia... Jararen kezka eta beharrak ez dira aldatu herri txikitik hiri berri handira egindako jauzian, biziagoak eta handiagoak egin dira agian. Eleberriak oso ondo islatzen du gazteen mundua, haien hizkera, haien interesak eta kezkak eta familiarekiko nahiz lagunekiko harremanak. Protagonistak DBHko ikasleak dira; ikasleek erraz identifikatuko dute beren burua haiekin. Jara eta gainontzeko pertsonaien ekintzak behatuz eta baloratuz, beren buruaz eta inguruneaz hausnarketa egitea ahalbidetuko die ikasleei.

Jararen munduan sartzen diren irakurleak, nekez irtengo dira bertatik haren hurrengo abentura irakurtzeko irrika bizia sentitu gabe. Hain da erakargarria nerabeen mundu gorabeheratsua!

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Irakurritakoa ulertzea, interpretatzea eta balioestea, norberaren sentsibilizazio estetikoa garatuz.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Katalana eta beste atzerriko hizkuntza batzuk ezagutzearen aberastasun pertsonala balioestea.

Hizkera formala eta lagunartekoa bereiztea eta bakoitza dagokion esparruan erabiltzea, eta euskarak lagun artean komunikatzeko baliabideak eskaintzen dituela ulertzea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea.

Norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.

Sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.

Zientziarako gaitasuna

Mendekotasuna sortzen duten substantzien inguruko pentsamendu kritikoa garatzea.

Sexu-osasuna eta sexu-jokabidearen garapena.

Arterako gaitasuna

Proposatutako musika-obren alderdiak ikertzea eta testuinguruan aztertzea.

Zuzeneko kontzertuetara joatea eta ikasitakoan oinarritutako iritzi-trukeak izatea.

Irizpide eta gustu musikalak errespetatzea eta argudio logiko eta arrazoituak azaldu eta onartzea.

ZE HAR-GAITASUNAK**Elkarbizitzarako gaitasuna**

Pertsonen artean egon daitezkeen desberdintasunak errespetatu, ulertu eta aintzat hartzea.

Adiskidetasunaren eta pertsonen arteko harreman positiboen onuraz jabetzea.

Beste kultura eta ohitura batzuk ezagutzea, besteak ulertzen eta errespetatzen ikasteko.

Elkarbizitzaren arauak betetzea, gizarte-harremanetan ongizatea eta harmonia sustatzeko.

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Bizi proiektuak sortzea (lan bat izan nahi izatea) eta nor bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea.

Lan egiteko motibazioa aurkeztea.

Egoera berrien aurrean (bizileku, ikastetxe... aldaketa), ausardiaz eta prestutasunez aurre egitea erronkari.

Izaten ikasteko gaitasuna

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista.

Gorputz-irudiaren autoerregulazioa.

Emozioen autoerregulazioa.

Balioetan hezte

Bartzelonara iristea ez da batere samurra izan Jararentzat, eta egoera berriei aurre egin beharrean aurkitu du bere burua. Kosta ahala kosta, Jarak inguruan dituen lagunen antzekoa izan nahi du, eta hiri berrira egokitu. Heldu sentitu nahi du, momentua bizi, eta betebeharrak eta ardurak bigarren plano batean utziko ditu. Gezurretan hasiko da, eta bere gezurretan harrapatuta amaituko du. Bere erabakien ondorioen ardura bere gain hartu beharko du, eta damua zigorrik zorrotzena izan daitekeela ikasiko du. Horrek guztiak bere burua hobeto ezagutzen eta pertsona bezala hazten lagunduko dio.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Lagun berriak · 1. jarduera

Jara Bartzelonan irakurtzen hasi aurretik, oso baliagarria izango da ikasle guztien artean *Jara* saileko lehen bi liburuak (*Jara* eta *Jara, bikiak eta bikoteak*) gogoratzea: pertsonaia nagusiak, gertakari garrantzitsuenak, aurreko liburuan istorioa zein puntutan amaitu zen...

Behin liburua irakurrita, lanean has gaitezke. Jarduera honetan, Jararen mundu berrian azaldu diren pertsonaia nagusiak nor diren, Jararekin zer harreman duten eta beren ezaugarri bereizgarrienak zein diren azalduko dute.

Jara, neska berezia · 2. jarduera

«Ihantzaz akordatu zen eta pentsatu zuen hura berehala bilakatuko litzatekeela gela hartako erregina. Ihintza ausarta zelako, irekia, berba ematen zuena, alaia. Ihintza bezalakoez abentura zirraragarria da zerotik hasia, jendea ezagutzea, lagun berriak egitea. Jararentzat, aldiz, sufrikarioa zen hasi hitza. Aldaketek ikara ematen zioten eta, berak zeukan onena erakutsi beharrean, eskolean ezkutatzen zen, barraskiloak bezala. Arraroa zen jende berriarentzat. Itxia». (18. or.)

Narrazioan zehar, batez ere beheraldietan, bere buruaz duen iritzi negatiboa agerian uzten du Jarak. Bere burua ingurukoekin konparatzen du eta txiki bihurtzen du. Hala ere, kanpotik gauzak ezberdinak dira. Jara neska alaia eta jatorra da, sinpatikoa eta dibertigarria, sentikorra, arduratsua... Ikasleei Jararen bertuteak eta alde positiboa deskribatzea proposatuko diegu.

Jarduera honek, idazmena lantzeaz gain, askotan gure buruaz dugun pertzepzioa eta errealitatea bat ez datozela eta akatsez gain dohainak ere baditugula gogorazteko balioko die ikasleei.

Herrikoak eta hirikoak · 3. jarduera

Kontakizunean, Jarak behin eta berriz errepikatzen du bere herriko gazteak eta Bartzelonakoak zein desberdinak diren. Jarak emandako argudioak erabiliz, taula osatuko dute ikasleek.

Jarduera amaitutakoan, desberdintasun hauei buruz hitz egingo dugu ikasleekin, halako galderak proposatuz: Herri txiki bateko gazteak eta hiri handi batekoak desberdinak direla uste duzue? Zertan dira desberdinak? Zuen ustez, zergatik

gertatzen da hori? Herrialde desberdinetako gazteen artean ere desberdintasunak daudela esango zenukete? Azkenik, beste herri, hiri edo herrialderen batean bizi den lagunik edo lehengusu-lehengusinarik duten galdetuko diegu, eta haien eta beraien artean sumatu dituzten desberdintasunik nabarmenenak aipatzea proposatuko diegu.

Uneak · 4. jarduera

Fitxa honetan, argumentua ulertu duten eta laburbiltzeko gai diren egiaztatuko dugu. Hasteko, argumentua bost une klabetan laburtu beharko dute. Horren ondoren, Jarak kontakizunean hartutako bost erabakitatik bi aukeratu eta erabaki horiek argumentuan zer eragin duten azaldu beharko dute.

Gezurak, gezurak, gezurak · 5. jarduera

Hasiera ez zen samurra izan, eta behin Bartzelonan integratuta eta lagun eta mutil berriak ezagututa, Jara gorenean dago. Hiri berri batek ateak ireki dizkiola sentitzen du, eta dena probatzeko zirrarez dago. Lehenengo aldiz bere bizitzan, ikasketek garrantzia galdu dute, eta bizitzaz gozatzea eta momentua bizitzea besterik ez du buruan. Errebelde izaten eta gurasoei gezurak esaten hasi da.

Gezur horiek pisu handia dute kontakizunean. Horregatik, gezur horietako bat hautatzea eta kontakizunean zer ondorio izan duen azaltzea proposatuko diegu ikasleei.

Azaldu zure hitzekin · 6. jarduera

jarduera honetan, ikasleek liburutik ateratako hiru pasarte aurkituko dituzte. Lehenik, pasarte horiek kontakizunaren lerroan kokatu beharko dituzte eta, ondoren, beren hitzak erabilita, Jarak une bakoitzean zer sentitzen duen azaldu.

Hitz gurutzatu flipanteak · 7. jarduera

Jasone Osorok oso ondo islatzen du gazteen hizkera. Lagunarteko erregistroa darabil eta elkarrizketa bizi-biziak. Hizkera mota honi buruz hitz egingo dugu ikasleekin: Zuen ustez, idazleak ongi islatzen du gazteen hizkera? Hizkera horretan zuen burua islatuta ikusten al duzue?

Ondoren, egoera bakoitzak erregistro bat eskatzen duela eta egoera horretara hobekien egokitzen dena aukeratu behar dutela gogoraraziko diegu.

Segidan, jarduera ludiko bat proposatuko diegu. Liburuko pertsonaiek erabilitako zenbait hitz eta esamolde baliatuz hitz gurutzatuak osatu beharko dituzte.

Bakarrik · 8. jarduera

Bartzelona hiri handi eta arrotzean bakarrik eta txiki sentitzen da Jara lehen egunetan. Dena da desberdina, eta Jarari kosta egiten zaio bere lekua aurkitzea. Jendez inguratuta egon arren, bakarrik sentitzen da, eta bere ustez, bakardade hori da pertsonak gaizki sentiarazten dituen.

Ikasleei noizbait hala sentitu diren pentsatzeko eta horretaz idazteko eskatuko diegu. Baliteke batzuek laguntza behar izatea. Horretarako, egin honelako galderak: Egon al zarete inoiz inor ezagutzen ez zenuten leku berri batean? Adibidez, udalekuetan, eskolaz kanpoko ekintzaren batean... Nola sentitu zineten?

Sinonimoak · 9. jarduera

Jarduera honetan, ikasleek eleberrian zehar ageri den lexikoa barneratu dutela frogatuko dugu. Jarduera honek bi helburu ditu: irakurritakoa ongi ulertu dela ziurtatzea eta norberaren hiztegia aberastea.

Lanpostua zeurea da · 10. jarduera

Bartzelonako gazteek lanean oso goiz hasteko ohitura dute. Gazteak eta lan munduaz hitz egingo dugu ikasleekin: Noiz hasten dira lanean inguruan dituzten gazteak (anai-arrebak, lagunak...)? Inork noizbait lan txikiren bat egin al du (adibidez, gurasoen tabernan egon, lehengusuren bat zaindu...)? Lanean hasteko gogorik badute? Zergatik? Nolakoa izaten da langileak hautatzeko prozesua? Curriculuma, elkarrizketa... prozesu horretaz hitz egingo dugu laburki.

Ondoren, lan bila dabiltzala imajinatzeko eskatuko diegu. Fitxak banatuko ditugu eta iragarki-taulako lanpostu bat aukeratuko dute (gehien gustatzen zaiena, ondoen egokitzen zaiena...). Jarraian, hautagai aproposa dela frogatzeko, lanpostu hori betetzeko zein gaitasun eta trebetasun dituzten azaldu beharko dute. Esaterako: apal-betetzaile gisa lan egiteko egokia naizela uste dut, oso txukuna eta bizkorra bainaiz. Ideia-jasa egin ostean, aurkezpen-gutun bat idazteko eskatuko diegu.

Urte batzuk igaro arte ziur aski lanean hasiko ez badira ere, jarduera honek etorkizunean bai ala bai murgilduko diren lan munduaz hausnartzeko aukera emango die ikasleei.

Ikertu

Bartzelona

Bidaiazeko prest? Oraingo honetan Jara eta bere familia hartu dituen hiria hobeto ezagutzea proposatuko diegu ikasleei.

Hasteko, Bartzelona ezagutzen duten eta noiz edo noiz bertan egon diren galdetuko diegu. Horretarako galderak egin genitzake: Non dago? Bertako leku esanguratsurik ezagutzen duzue? Zein hizkuntzatan hitz egiten dute bertan bizi direnek? Zein da liburuaren azaleko irudian Jararen atzean ikus daitekeen eraikina? Bartzelona bisitatu duen norbait balego, bertan ikusitakoa eta hiria zer iruditu zitzaion kontatzeko eskatuko diogu.

Jarraian, ikasleak taldeetan banatuko ditugu, eta talde bakoitzari Bartzelonako mapa bat emango diogu (hobe A3an inprimatua badago, hobeto ikusteko). Liburuan aipatzen diren tokiak bilatu eta markatzeko eskatuko diegu: Katalunia plaza (Jara bertan bertan elkartu ohi da lagunekin), Laietana kalea (han dago Elena eta Ferranen dendetako bat), Grazia auzoa (bertan izan zen etxe okupatuko festa pribatua)...

Ondoren, Bartzelonako leku interesgarrien informazioa bilatu (Interneten, entziklopedietan, gida turistikoetan...), eta bisitatu nahi lituzketen hiru toki aukeratzeko eskatuko diegu. Behin aukeratuta, horiek ere mapan markatuko dituzte. Amaitzeko, gainontzeko taldeei bisitatuko dituzten lekuak zein diren azalduko diete, eta mapan non dauden erakutsi.

Jarduera honi esker, beste leku batzuk ezagutzeaz gain, taldean lan egiten eta mapak ulertzen eta erabiltzen trebatuko dira ikasleak.

Hamaika modu agurtzeko

Jarari arreta piztu dio Bartzelonako gazteek agurtzean musu emateko duten ohiturak. Elkartzen diren guzti-guztietan musu bana ematen diote elkarri,berdin dio aurreko egunean edo goizean elkar ikusi badute. Izan ere, bere herrian musuen kontua oso gauza intimoa izan ohi da.

Agurtzeko modua desberdina da munduan zehar eta desberdina izan da historian zehar ere. Europan musua betidanik izan da agurtzeko era, baina beste kontinente batzuetan, Asian adibidez, kontaktu fisiko gutxiagoko moduak erabiltzen dituzte. Agurtzeko modu hauek guztiak aztertzea proposatuko diegu ikasleei.

Ikasleak, 4-5 pertsonako taldetan banatuko ditugu eta gai horri buruzko informazioa bila dezaten eskatuko diegu entziklopedietan eta webguneetan (iturri fidagarriak kontsultatzea behar-beharrezkoa dela azpimarratuko dugu). Hori egin

ondoren, talde bakoitzak lortutako informazioa landuko du, eta ikaskideen aurrean azalduko.

Amaitzeko, ikerketa egitean azaldu diren herrialde, kontinente eta taldeen izenak idatziko ditugu papertxoetan (adibidez, Japonia, Italia, Ozeania, eskimalak, Ngá tribua...). Tolestu eta kaxa batean sartuko ditugu. Ikasleak binan-binan kaxara hurbilduko dira eta papertxo bat aterako dute kaxatik. Ikasitakoa kontuan hartuz, elkar agurtu beharko dute.

Eztabaidatu

Bizitzako unerik onena

Liburuko 118. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

«Lehenengo aldiz bere bizitzan, ikasketek garrantzia galdu zuten. Zertarako ikasi? Ez al zituen hamabost urte? Ez al zen garaia ondo pasatzeko?

—Nik ere gauza bera pentsatzen dut —Laiak eta Jarak iritzi bera zuten—. Orain gara gazteak eta orain bakarrik disfrutatu ahal dugu hainbat gauzaz.

—Gero gerokoak! —oihu egin zuen Jarak».

Pasarte hau aztertu eta eztabaida pizteko zenbait galdera proposatuko ditugu:

- Ados zaudete Jara eta Laiarekin? Zergatik da garai hori hain berezia? Garai horretan bakarrik egin daitezkeen gauzak (aurrerago egin ezin daitezkeenak) daudela esango zenukete? Zein gauza?
- Zein da, zuen ustez, bizitzako garairik onena eta gozagarriena? Zergatik?
- Zein izan daitezke ikasketak eta bestelako betebeharrak albo batera utzi eta garai hori bakarrik disfrutatzen bideratzearen ondorioak?
- Ikasketak disfrutatzeko denbora kentzen dutela uste duzue? Denbora galtzea direla uste duzue?

Ahalegina egingo dugu ikasleek iritzi guztiak entzun eta errespetuz adieraz ditzaten. Amaitzeko, banan-banan aipatuko ditugu taldeak ateratako ondorioak.

Gazteak eta alkohola

Bartzelonako lagunek ateratzen diren bakoitzean alkohola kontsumitzeko ohitura dute: kontzertuetan, diskotekan, poteoan, festa pribatuetan... Nerabeak eta edanari buruz hitz egingo dugu ikasleekin. Hasteko, liburuko 41. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

«—Nahi? —ezezagun batek konbinatu bat eskaini zion Jarari.

—Ez, mila esker.

—Edan, askoz integratuagoa sentituko zara!».

Pasarte hau aztertu eta eztabaida pizteko zenbait galdera proposatuko ditugu:

- Alkoholak integratuago sentitzen lagundu dezakeela uste duzue? Zein modutan? Alkoholak izaera alda dezakeela uste duzue?
- Kontzertu bat ikusteko, lagunekin solasean aritzeko, dantza egiteko... beharrezkoa al da alhokola edatea? Zuen ustez, zertan da desberdina horiek guztiak alkoholik edan gabe edo edanda egitea?
- Zergatik edaten dute gazteek?

Jarak, Laiak eta parrandan bildu ohi diren lagunetako askok 15 urte besterik ez dituzte. Legearen arabera, tabernetan ezin zaie alkoholik zerbitzatu, baina liburuko protagonistek beti aurkitzen dute alkohola lortzeko modua: alkohola erosteko adina duen norbaitek besteentzat erostea, botiloia egitea... Eztabaidatzen jarraituko dugu, honako galderak eginez:

- Zer iruditzen zaizue legeak 18 urtetik beherakoei alkohola zerbitzatzea eta saltzea debekatzea? Zuen ustez, zergatik dago lege hori indarrean? Baliagarria dela uste duzue?
- Zuen ustez, gazteak goizegi hasten dira alkohola kontsumitzen? Alkoholak gazteengan ondorioak dituela uste duzu? Zer egin daiteke arazo horri irtenbidea emateko?

Sortu

Eta orain, zer?

Jararen abenturak honaino jarraitu dituzten jarazaleak, hurrengo abentura irakurtzeko irrikaz egongo dira ziur aski. Bada, hurrengo liburuak zer kontatuko digun asmatzea proposatuko diegu.

Ikasle bakoitzak folio bat hartu eta erditik tolestuko du: gure liburuaren azala izango da hori. Pista modura liburuaren izenburua emango diegu: *Jara live*. Izenburuak iradokitzen diena eta Jarak Bartzelonan izandako bizipenak kontuan hartuta, *Jara live* liburuaren argumentuaren korapilo nagusiak zein izan daitezkeen idatziko dute kontrazalean. Ondoren, idatzitakoarekin bat datorren irudi bat marraztuko dute azalean.

Ikasle guztiek amaitutakoan, *Jara live* liburuaren benetako azala erakutsiko diegu, eta bertako laburpena irakurri. Benetako azala eta ikasleek egindakoak alderatuko ditugu: Asmatu al dute?

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

1. Lagun berriak

Jarak lagun berri eta interesgarriak egin ditu Bartzelonan. Azaldu nor diren eta nolakoak diren pertsonaia hauek.

- Laia

.....

.....

.....

- Oriol

.....

.....

.....

- Elena eta Ferran

.....

.....

.....

2. Jara, neska berezia

Jarak nahiko adjektibo ezkorrak erabiltzen ditu bere buruaz hitz egiten duenean: itxia, lotsatia, ikaratia, arraroa... Deskribatu Jara, bere dohainak eta bertuteak go-raipatuz, berak ere zeinen neska berezia den ikus dezan.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

3. Herrikoak eta hirikoak

Gazteak berdinak direla toki guztietan uste al duzu? Bada, egin konparaketa. Horretarako, deskribatu nolakoak diren gazteak, zer egiten duten aisialdian eta zer lan mota egiten dituzten hirikoek eta herrikoek.

	Herrian	Hirian
Gazteen izaera eta itxura		
Gazteen aisialdia		
Gazteak eta lana		

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

4. Uneak

Idatzi, ordenan, zure ustez eleberriaren garapenean funtsezkoak diren bost gertakariak.

1.

.....

2.

.....

3.

.....

4.

.....

5.

.....

- Aukeratu Jarak hartutako erabaki hauetako bi eta esan erabaki horiek zer ondorio izan dituzten.

1. Laiari hitz egiten ausartu da.

2. Iragarkiari telefonoz erantzun beharrean, zuzenean Elenarekin hitz egitera joatea erabaki du.

3. Amari Ferranekin lan eskaintzaz hitz egitera joaten utzi dio.

4. Telefonoz Urkorekin hitz egin duenean, ez dio Orioli buruz hitz egin.

5. Azterketa egitera joan beharrean, goiza Oriolekin ematea erabaki du.

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

5. Gezurrak, gezurrak, gezurrak

Gezur bat beste baten atzetik. Jarak ordura arte ez zuen ia arazorik eman, baina lehenengo gezurraren ondoren, egoerak eskuetatik ihes egin dio eta orain beranduegi da atzera egiteko. Esa zein izan den zure arreta gehien deitu duen gezurra eta azaldu zer ondorio izan duen Jararentzat.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

6. Azaldu zure hitzekin

Azaldu, zure hitzak erabilita, liburuko pasarte hauek. Behar izanez gero, bilatu liburuan, zer testuingurutan esaten diren gogoratzeko.

1. «Okupa sentitzen zen etxe okupatu handi hartan». (110. or)

.....

.....

2. «Beraz, hantxe, ogitarteko baten erdian sentitzen bazen ere, egoerari aurre egin behar zion». (128. or)

.....

.....

3. «Damua da zigorrik zorrotzena». (164. or)

.....

.....


IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

7. Hitz gurutzatuak

Liburuko pertsonaiek lagunarteko hizkera bizia darabilte. Osatu hitz gurutzatuak haiek erabilitako hitz eta esamoldeak idatziz.



HORIZONTALAK

1. Txundigarria, ikaragarria.
2. Norbaitekin txolindu.
3. Norbaiti begia bota.
4. Neska/mutil ederra, neska/mutil....
5. Hainbat orrialdeko liburukotea.

BERTIKALAK

6. Norbaitekin kimika ona izan, ... ona izan.
7. Norbaitekin sexu jolasean aritu.
8. Sekulakoa, egundokoa.
9. Ahituta egon, nekatuta egon, ... egon.
10. Berbaldi luze eta aspergarria.

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

8. Bakarrik

Bartzelonara iristean, Jara oso bakarrik sentitzen da. Irakurri liburuko pasarte hau eta saiatu Jararen sentimenduak deskribatzen. Sentitu al zara inoiz horrela? Noiz?

«Mundua inoiz baino erraldoiagoa zen eta munstro handi batek ezarritik behera irentsiko zuela pentsatzen hasita zegoen. Bakardadearen munstroak, nola ez».

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

9. Sinonimoak

Lotu hitz bakoitza bere sinonimoarekin. Ondoren, idatzi *Jara live* eleberriarekin lotutako hiru esaldi, hitz horietako batzuk erabiliz.

- | | | |
|------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------|
| ☐ begitandu | ☐ herabea | ☐ higuingarria |
| ☐ aztoratu | ☐ antxintxika | ☐ idilikoa |
| ☐ traketsa | ☐ beta | ☐ desenkusatu |

.....

.....

.....

.....


IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

10. Lanpostua zeurea da

Demagun zuri ere lanean hasi eta dirutxo bat irabazteko gogoia iritsi zaizula. Irakurri iragarki-taulako lan eskaintza hauek eta aukeratu gehien interesatzen zaizuna. Jarraian, idatzi zergatik zaren hautagai onena lanpostu horretarako aurkezpen-gutun batean.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

Irakurmen-testa

Galdera hauetako bakoitzean, aukeratu egokia iruditzen zaizun erantzuna, eleberria ondo ulertu duzun ikusteko.

1. Zergatik erabaki du Jarak ile-apaindegira joan eta *look* aldaketa egitea?

- a** Ihintzari eta Urkori Bartzelonan integratu dela sinestarazi nahi dielako.
- b** Gelako nesken arreta bereganatu eta haien lagun-taldean sartu nahi duelako.
- c** Ile-orrazkera berri batek beste aldagetaren bat ere ekarriko diola begitandu zaiolako.

2. Zergatik egin nahi du lan Jarak?

- a** Bartzelonan ateratzea garestia delako eta bere gastuetarako dirua izan nahi duelako.
- b** Lagun berriei heldua dela erakutsi nahi dielako.
- c** Amari eta aitari kontra egitearren.

3. Zer baldintza jartzen diote gurasoek lanean hasteko?

- a** Irabazten duen dirua aurreztu egingo duela.
- b** Gaueko hamarretarako etxean egongo dela beti.
- c** Lanak ez diola enbarazurik egingo ikasketetan.

4. Zer saltzen dute Elena eta Ferranen dendetan?

- a** Arropa modernoa.
- b** Antigoaleko gauzak.
- c** Diskoak, liburuak eta antzekoak.

5. Non ezagutu dute elkar Jarak eta Oriolek?

- a** Kontzertu batean.
- b** Elena eta Ferranen dendetako batean.
- c** Ikastetxean.

IZENA: MAILA:

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

6. Zergatik egin du alde Jarak etxe okupatuko festa pribatutik?

- a** Laiak gehiegi edan duelako eta gaizki sentitzen delako.
- b** Egoerak gainez egin diolako: festako desmadrea, bertara joateko amari gezurra esan izana, Oriolekin logelara igotzea...
- c** Ez zaio gustatu Oriolek logelan nola tratatu duen.

7. Zein ustekabeko sorpresa aurkitu du Oriolen etxean?

- a** Urko azaldu da.
- b** Gurasoak bila joan zaizkio.
- c** Oriolen neska-lagun ohia.

8. Herriko zein lagun joan zaio bisita egitera?

- a** Ihintza.
- b** Ihintza eta Urko.
- c** Ihintza, Urko eta Nora.

9. Zergatik aukeratu dute asteburu hori eta ez beste bat Bartzelonara joateko?

- a** Jara zigortuta dagoelako, eta badakitelako beraiek han egonda, gurasoek irtetzen utziko diotela.
- b** Beraien gustuko taldeak kontzertua eman behar duelako.
- c** Elena, Ferran eta Carla asteburu horretan kanpoan egongo direlako eta, beraz, Jarak lanik ez duelako izango.

10. Kontakizunaren amaieran, Elena eta Ferran Jararen etxean azaldu dira. Zertarako?

- a** Jara neska fina eta langilea dela eta beraiekin lanean jarraitzea nahi dutela esateko.
- b** Jararen portaera ikusita, beraiekin lanean ez jarraitzea erabaki dutela esateko.
- c** Oriolek lan egiten duen denda berean lan egiteko aukera eskaintzeko.

Erantzunak

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

1. Lagun berriak

- E.E.: Laia: Jarak Bartzelonan egin duen lehen laguna da. Ihintzaren antz handia dauka: ausarta eta irekia da, eta jende piloa ezagutzen du. Neska alaia eta sinpatikoa da. Jara eta bera oso desberdinak dira gauza askotan: etorkizunera begira dituzten planei dagokionez, maitasun kontuei dagokionez... Laiak ikuspegi modernoagoa eta Jarak tradizionalagoa daukala esan daiteke.
- Oriol: Jarak Bartzelonan ezagutu duen mutila da. Hamazortzi urte ditu eta Arte Ederrak ikasten ari da. Elena eta Ferranen dendetako batean egiten du lan. Errebeldia puntu bat du, baina arretatsua eta arduratsua da Jararekin. Oso guapoa da, eta konkistatzailea.
- Elena eta Ferran: Jarak haientzat egiten du lan, haien alaba txikia zainduz. Oso jatorrak eta atseginak dira, kultuak eta edukatuak. Jararen gurasoak baino gazteagoak dira, eta haiek baino pentsaera zabalagoa eta modernoagoa dute.

2. Jara, neska berezia

E.E.: Jara alaia eta jatorra da. Oso lagun ona da, arretatsua, eta beti dago prest lagunei laguntzeko. Ezezagunekin lotsatia da, baina behin konfidantza hartutakoan, oso neska dibertigarria eta sinpatikoa da. Arduratsua eta zentzuduna da, eta erabakiak zentzuz hartzen ditu, normalean behintzat. Bere adineko beste gazte askoren antzera maitabera eta sentikorra da, baita grinatsua eta ameslaria ere.

3. Herrikoak eta hirikoak

- **Gazteen izaera eta itxura:** Herrikoak: Guztiak berdin edo antzera janzten dira eta itxura nahiko zozoa dute. Hirikoak: Askoz ausartagoak eta modernoagoak dira bai janzkerari, bai pentsaerari dagokionez ere. Hamabost urteko gazteek hamazortzi dituztela ematen du, irekiagoak dira... Badirudi arinago egiten direla heldu.
- **Gazteen aisialdia:** Herrikoak: Herriko gazteak Anabasa tabernan geratzen dira. Hirikoak: Hirian, asteburuero dute planen bat: kolean litroak egin eta kontzertuetara joan, pubetara joan, etxe okupetako jai pribatuetara joan...

Erantzunak

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

- **Gazteak eta lana:** Herrikoak: Badira tabernan kamarero aritzen diren gazteak, baina normalean hamasei edo hamazortzi urtetik aurrerakoak izaten dira. Hirikoak: Jararen adineko gehienek arratsaldetan lan egiten dute: zerbitzari, dendari, almazenetan...

4. Uneak

- E.E.: 1. Jarak Laia ezagutzen du eta Bartzelonak eskaintzen dizkion aukerak erakusten dizkio. / 2. Jara lanean hasten da Carla, hiru urteko haurra, zainduz. / 3. Jarak Oriol ezagutzen du eta berarekin irtetzen hasten da. / 4. Oriolek eta Bartzelonako bizimoduak txundituta, ikasketak albo batera uzten ditu eta gurasoen ezkutuan jokatzeko hasten da. / 5. Gurasoek harrapatu eta zigortu egiten dute, eta Jara egindakoaz damutzen da.
- E.L

5. Gezurrak, gezurrak, gezurrak

E.E.: Gaua Laiaren etxean pasatuko zuela esan zien, baina Oriolekin batera etxe okupako jai pribatura joan zen. Hala ere, pentsatu baino arinago festatik alde egin behar izan zuen, eta Laiak bertan geratzeko asmoa zuenez, etxera itzuli behar izan zuen. Amak segituan igarri zion parrandan ibilia zela. Gero, Historioako azterketa gainditu zuela esan zien. Handik egun batzuetara, ikastolatik etxera deitu zuten, eta gurasoek azterketa suspenditu zuela jakin zuten. Beste behin, Elenak Carla zaintzeko deitu ziola esan zien, baina Oriolen etxera joateko aitzakia baino ez zen izan. Jararen amak Elena topatu zuen kalean, eta Jarak gau hartan lanik ez zuela izan esan zion. Beste behin ere, gezurra agerian.

Gezurren ondorioz, gurasoek Jararengan zuten konfiantza galduko dute, eta zigortu ere egingo dute: uda herrira joan gabe eta errekupeazioak prestatzen pasatu beharko du. Jarak, berriz, gurasoei huts egin diela sentituko du, eta horrek oso gaizki sentiaraziko dio.

Erantzunak

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro


6. Azaldu zure hitzekin

E.E.: 1. Etxe okupako jai pribatuan, ezezagunez inguratuta dago, eta horrek deseroso sentiarazten du. Ez da ausartzen inorekin hitz egiten, ezta janaria eta edaria dastatzen ere.

2. Oriolen etxean, Olga eta Oriolen harremanaren erdian dagoela sentitzen du. Ihes egiteko gogo du, baina ez du nahi Oriolen aurrean jeloskor geratu, ezta tuntun baten gisa Olgaren aurrean ere. Beraz, filma ikusi arte egoerari eustea erabaki du.

3. Zerbait gaizki egiteagatik damua sentitzen duen pertsona errudun sentitzen da, egindakoak atsekabea sentiaratzen dio. Ez dago hori baino min gehiago egin dezakeen zigorrik.

7. Hitz gurutzatuak



Erantzunak

JARA BARTZELONAN

Jasone Osoro

8. Bakarrik

E.E.: Jara bakarrik sentitzen da. Bartzelonan dena da berria: hiria, eskola, ikaskideak... eta kosta egiten zaio bere lekua aurkitzea. Bere gelako neska moderno eta ausartekin alderatzen da, eta txiki sentitzen da. Hiri berri eta handi batean, bakarrik eta txiki.

9. Sinonimoak

8	begitandu	9	herabea	7	higuingarria
1	aztoratu	2	antxintxika	5	idilikoa
6	traketsa	4	beta	3	desenkusatu

10. Lanpostua zeurea da

Jaun/Andre agurgarria:

Hil honen 13an argitaratu zen iragarkian eskaintzen zenuten umezain-lanposturako aurkeztu nahi dut neure burua.

Eskaintzen duzuen lanposturako baldintzak betetzen ditudala uste dut; izan ere, umee-kin jolastea asko gustatzen zait eta eskarmentu handia dut antzeko lanpostu batean: iaz nire lehengusu txikiak zaintzen ibili nintzen eskola-orduetatik kanpo. Halaber, oso pertsona arduratsua naiz eta hori umeak zaintzeko ezinbesteko baldintza dela uste dut.

Gutun honekin batera, adin txikikoa naizenez, nire gurasoen baimena bidaltzen dizuet. Nahi izanez gero, aurrez aurreko elkarrizketa bat egiteko prest nago, elkar hobeto eza-
gutzeko.

Zuen berrien zain geratzen naiz.

Agur bero bat.

Sinadura

Irakurmen-testa

1 c; 2 a; 3 c; 4 c; 5 b; 6 b; 7 c; 8 b; 9 a; 10 a.